



## KONTSULTA PUBLIKOA, GIZARATERATZEKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LEGEA ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA EGIN AURREKOA

Lan eta Enplegu Sailak, Enplegu eta Gizarteratze Saiburuordetzaren bitartez, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren izapidetzea bultzatu nahi du.

Horretarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikularekin bat etorritz, kontsulta publikoa sustatzen da Administrazioaren web-atariaren bidez (euskadi.eus eta Irekia), etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsonen eta erakundeen iritzia zuzenean jasotze aldera.

### A) ZER ARAZO KONPONDU NAHI DIREN EKIMENAREN BIDEZ

Azken urteotan, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko ezarritako neurrien eraginkortasunari bi krisi sakonek eragin diote – 2008koak eta COVID-19k sortutako egungo krisiak –, eta krisi horiek, jatorri desberdinekoak izan arren, eragin nabarmena izan dute herritarren gizarte- eta lan-baldintzetan eta, halaber, ondorio negatiboak izan dituzte pobrezian eta gizarte-bazterkerian.

Hala, adibidez, luzaroko langabeziaren, migratzaileen baliabide pertsonalik ezaren, bazterkeria-arriskuaren feminizazioaren eta pentsiodun batzuen baliabide ekonomikoen eskasiaren ondorioez gain, enplegu-modu prekarioenen hazkundeak eragindakoak ere badaude, eta, horren ondorioz, pertsona gehiagok babesa jasotzeko beharra dauka.

Arazo horiei egungo araudiaren mugak gehitu behar zaizkie, luzeegiak eta zurruneziak batzuetan, baita Biziarateko Gutxieneko Diru-sarrera sortu izana ere: Gizarte Segurantzaren prestazio berria. Haren helburu batzuk bat datoz Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren helburuekin, eta aurreikusten da haren kudeaketa osoa Euskal Autonomia Erkidegoari transferituko zaiola.

Egoera konplexu horrek zenbait gairi buruzko gogoeta egitera behartzen gaitu:

- a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Bizitzako Gutxieneko Diru-sarreraren prestazioen kudeaketa koordinatua.
- b) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren sistemaren hartzaile izan daitezkeen interesdunentzako prozedurak berrikustea eta sinplifikatzea, konplexuegiak baitira.
- c) Pertsonen premia aldakorretara ahalik eta azkarren egokitzea.
- d) Eskatzaileek baldintza jakin batzuk betetzen dituztela egiaztatzearekin lotutako zailtasunak (adibidez, bizikidetzaren unitatearen osaera, baliabide ekonomikoak eta ondare-mugak zehazteari eragiten diotenak, bai eta prestazioen onuradunen benetako bizilekua zehaztearekin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoarekin lotutako beste zailtasun batzuk ere).
- e) Laneratzeko zailtasun handiagoak direla-eta, enplegurako pizgarrien sistema birplanteatu behar da, hori baita diru-sarrerak bermatzeko EAEko ereduaren mekanismo esanguratsu eta eraginkorrenetako bat.





- f) Gizarte-larrialdietarako laguntzen zeregina birdefinitzea, herritarrei babes ekonomikoa emateko eredu orokorraren barruan, etxebizitzari eta gizarte-zerbitzuei buruzko EAEko legeriak sartutako aldaketetara egokitzeko.

## B) ONARTU BEHARRA ETA AUKERA

Azaldutakoaren ondorioz, egokitu egin behar dira Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko EAEko Sistema osatzen duten neurriak, sistema Euskadiko ongizate-eredu orokorraren zati gisa normalizatzeko, modu horretan, hau guztia egin ahal izateko: diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren diseinua egungo testuinguru sozioekonomikora egokitu; prestazioen estaldura hobetu; urteetan zehar agerian geratu diren disfunczioak zuzendu; eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren prestazio berriaren kudeaketa barne hartu.

Aipatutako arazoen, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea argitaratu zenetik igaro den denborak eta ondoren Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez aldatu izanak, bai eta Biziarako Gutxieneko Diru-sarrera sortzeak eta tresna horren kudeaketa Eusko Jaurlaritzari eskualdatzeak ere, beharrezkoa egiten dute alderdi horiek guztiak bilduko dituen eta kohesio handiagoa lortzera bideratuko den arau bat prestatzea.

## C) ARAUAREN HELBURUAK

Arauaren helburua da identifikatutako arazoei irtenbideak ematea, sistema normalizatzea Euskadiko ongizate-eredu orokorraren zati bat bezala, eta ebaluazioan eta ezagutzan oinarritutako berrikuntzak ezartzea, sistemak Europako gizarte-politiken abangoardian jarrai dezan.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen aldaketaren helburua honako helburu hauek lortzea da:

- 1) Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko EAEko Sistema eguneratzea, sistema autonomo gisa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen prestazio guztien osotasun koherente eta integratu batean.
- 2) Berariazko neurri eta konponbideen bidez erantzutea testuinguru sozioekonomikotik sortutako premiei, eta, bereziki, lan-merkatuan eta gizarteratzean sartzeko aukerak bultzatu eta hobetzera bideratutakoei.
- 3) Herritarrengandik hurbilago dagoen sistema bat ezartzea, araudia sinplifikatuz.
- 4) Eskaintzen diren prestazioen estaldura hobetzea, bai hartzaileen ikuspegitik, bai zenbatekoak finkatzeko mekanismoen ikuspuntutik, espezifikotasunak kontuan hartuta, hala nola seme-alabak dituzten familien babesa, guraso bakarreko familia izatea, mendetasuna, eta abar.
- 5) EAEko etzekoen unitateen osaera desberdinak kontuan hartzea, aldi baterako arreta behar duten salbuespeneko egoerak identifikatuz.
- 6) Pentsiodunen espezifikotasunari erantzutea.
- 7) Prestazioen kudeaket hobetzen jarraitzea, prestazio eta laguntza ekonomikoen tramitazioaren, zorrotasunaren eta kontrolaren arintasuna areagotuz, kudeaketa sinplifikatuz izapideak telematikoki erraztuz, elkarreragingarritasuna sustatuz, pertsonen identifikazioa hobetuz, sistemaren iraunkortasun ekonomikoari eutsiz (zenbatekoak eta kasu bakoitzerako kalkulu-formulak eguneratzea).



- 8) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko EAeko Sistema osatzen duten prestazioen zeregina mugatzea. Bereziki, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
- 9) Gizarteratzeko EAeko Sistemaren eta gizarte- eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa indartzea.

Azken buruan, araua Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren erredua indartzen saiatuko da, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren errealitate berria eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko eskubide bikoitzaren sistema kontuan hartuta, gizarteratzeko hitzarmenak esku-hartzerako tresna tekniko gisa indartuz. Era berean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren unibertsalizazioan sakontzea bilatuko du, gaur egun nahikoa estaltzen ez diren biztanleria-segmentu jakin batzuetara iritsiz eta bereziki seme-alabak ardurapean dituzten familia behartsuetan eraginez, pentsiodun onuradunentzako berariazko sistema bat ezarriz, eta enplegua lor dezaketen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileen jarduera ekonomikoa eta gizarteratzea eta laneratzea sustatuz.

**D) EGON DAITEZKEEN BESTELAKO IRTENBIDEAK, ARAUTZAILEAK ETA EZ-ARAUTZAILEAK**

Deskribatutako testuinguruan, ezinbestekoa da izaera arauemaileko neurri espezifiko bat egitea, kontuan hartuta arautzailea ez den irtenbide alternatiboak statu quo-ari eusta ekarriko lukeela.

**ELENA PÉREZ BARREDO**  
**ENPLEGU ETA GAZTERIA SAILBURUORDEA**